



TURISMO-ARRANTZAREN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

ESP. LEA/AVC 446-NORM-2020

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK ETA XEDEA.....	2
II. DEKRETU-PROIEKTUA.....	3
III. TURISMO-ARRANTZAREN OINARRIZKO ARAUDIA	4
1. Estatuko oinarrizko araudia.....	5
A. Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legea	5
B. 239/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Turismo-arrantza garatzeko baldintzak ezartzen dituenena.....	6
IV. BALORAZIOA MERKATUETAKO LEHIAREN IKUSPEGITIK	7
1. LEA/AVCri txostena eskatzea eragindako merkatuan sartzeko baldintzak aztertzeke	8
2. Lehiari buruzko gogoetak, arrantza-turismoaren merkatura sartzeari dagokionez	9
A. Turismo-arrantzako jarduerak, arrantza-erakustaldiak eta arrantza- edo marinel-arrantzako jarduerak egin ditzaketen pertsonak (4.1 eta 2. artikulua)	10
B. Jarduerak egiteko baldintza orokorrak	12
a. Baimen, emakida edo lizentzia profesionala	12
b. Erantzukizun zibileko aseguruia eta Arrantza-flota operatiboaren Erroldan izena ematea	13
c. Jarduerak gauzatzeko baldintza orokorren laburpena	14
C. Jardueren hasiera.....	14
a. Sustapen Ministerioaren aldeko txostena	14
b. Erantzukizunpeko adierazpena.....	14
D. Turismo-arrantzaren, arrantza-erakustaldien eta marinel-turismoaren administrazio-erregistroa sortzea (Xedapen Gehigarria)	15
V. ONDORIOAK	15



Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea

Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea

Ainara Herce San Martín, idazkaria

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazi bezala osatuta, 2020ko uztailaren 28an eginiko bileran, txosten hau eman du LEA/AVC 446-NORM-2020 espedientean.

I. AURREKARIAK ETA XEDEA

2. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak izapidetu du Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako turismo-arrantzari, arrantzako eta akuikulturako turismoari eta arrantza-erakustaldiei buruzko dekretu-proiektua egiteko prozedura.
3. Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearekin bat etorritako egin da dekretu-proiektu hori¹.
4. Aipatutako araua egiteko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko sailburuaren hasiera-aginduak araua egiteko jarraitu beharreko izapideak eta eskatu beharreko txosten edo irizpenak jasotzen ditu, eta ez dago aurreikusita LEA/AVCri txostena eskatzea.

Dekretu-proiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko irizpenaren mende jarri da, eta batzorde horrek 94/2020 zenbakiarekin bideratu du 2020ko ekainaren 3an.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak araua egiteko prozedura aztertu du, eta honako gogoeta hau egin du irizpenaren 36. paragrafoan:

«Era berean eta proiektuak enpresa-jarduera jakin batzuetarako sarbidean eta haien jardunean eragiten duela egiaztatuta, batez ere jardun horretarako merkataritzako pertsona juridiko jakin batzuei buruzko erreserba egiten duenez (proiektuaren 3.1 artikuluko b eta c letrak), Batzordearen ustez, kaltea eragin dakieke “merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzei” “Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoei dagokienez” (1/2012 Legea, otsailaren

¹ 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. EHAA, 254 zk., 2003ko abenduaren 30ekoa.



2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa; 2. artikulua), eta, beraz, beharrezkotzat jotzen du agintaritza horrek esku hartzea (aipatutako legearen 3.5 artikulua)».

5. 2020ko ekainaren 26an, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, «*Tramitagune*» izeneko plataformaren bidez, LEA/AVCri txostena eskatu zion, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako turismo-arrantzari, arrantzako eta akuikulturako turismoari eta arrantza-erakustaldiei buruzko dekretu-proiektuaren inguruan.

LEA/AVCren irizpenera aurkeztutako dekretu-proiektua Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko eta Merkataritza eta Turismo Saileko sailburuek Gobernu Kontseilura eraman nahi dute, onar dezan, eta hala identifikatu da espedientean.

6. Legeak LEA/AVC honi ekintza ez zehatzaileen bidez merkatu-lehia eraginkorra sustatzearen arloan ematen dion ahala dela eta ematen da txosten hau. Zehazki, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.5 artikulua ezartzen duenez, LEA/AVCk lehiari eragiten dioten araugintzako egitasmoei buruzko irizpen ez-loteslea emango du.

II. DEKRETU-PROIEKTUA

7. Proiektuaren xedea da arautzea, arrantza-sektorearen jarduera osagarri gisa, turismo-arrantza, arrantza-erakustaldiak eta arrantza- edo marinel-turismoa, itsas arrantzarekin eta akuikulturarekin erabat edo partzialki lotutako jarduerak, baldin eta arrantza-sektoreko pertsonen errentak hobetzea edo osatzea ahalbidetzen badute.

8. Dekretu-proiektuaren hitzaurrean adierazten denez, marinel-turismoa lagungarria izan daiteke batetik, arrantzaguneetako ekonomia dibertsifikatzeko, jarduera osagarriak medio diru-sarrera berriak sortzeko, arrantza-produktuak sustatzeko, eta halako lanbideekin lotutako kultura, tradizioak eta ondarea berreskuratzea bultzatzeko, eta, bestetik, lanpostuak sortzeko.

Era berean, adierazten da arrantza-sektorea eta akuikultura-sektorea dibertsifikatzeko neurrien erregulazioa arrantza-sektorearen antolamenduaren barnean sartutako araudi-gai bat dela, arrantzaren ekonomia- eta ekoizpen-sektoreen erregulazioa hartzen duena eraginpean, betiere zuzeneko erauzpen-jardueraz bestelako gai guztietan.

9. Dekretu-proiektuak zortzi artikulua, xedapen gehigarri bat eta bi azken xedapen ditu.



Arauaren xedea erregulatzen du (2. art.), aplikazio-eremua (3. art.), jarduerak egiteko baldintza orokorrak (4. art.), ontzien betekizunak (5. art.), jarduera egiteko baldintzak (6. art.), jarduerak egitea (7. artikulua), jardueren jarraipen eta kontrol administratiboa (8. art), turismo-arrantzaren Erregistroa sortzea, arrantzako eta arrantza- edo marinel-turismoko erakustaldiak (xedapen gehigarria) eta aseguratutako kapitalen zenbatekoak eguneratzea (azken xedapenetatik lehena) eta indarrean jartzea (azken xedapenetatik bigarrena).

III. TURISMO-ARRANTZAREN OINARRIZKO ARAUDIA

10. Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 3ko 3/1991 Legeak eta Turismo-arrantzaren Jarduera Garatzeko Baldintzak ezartzen dituen apirilaren 5eko 239/2019 Errege Dekretuak arautzen dute oinarrizko izaeraz turismo-arrantza².
11. Bestalde, beste autonomia-erkidego batzuek arautu dute gaia, bai lege bidez, bai dekretu bidez³.

Euskal Autonomia Erkidegoak badu itsas arrantza arautzen duen lege bat: 6/1998 Legea, martxoaren 13koa, Itsas Arrantzari buruzkoa⁴; hala ere, lege horrek ez du turismo-arrantza arautzen.

² 239/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Turismo-arrantza garatzeko baldintzak ezartzen dituena. BOE, 92 zk., 2019ko apirilaren 17koa.

³ 17/2003 Legea, apirilaren 10ekoa, Kanarietako Arrantzari buruzkoa. 58 bis - 58 art. 6/2013 Legea, Balear Uharteetako itsas arrantza, itsaski bilketa eta akuikulturarena. 56. art. 5/2017 Legea, otsailaren 10ekoa, Valentziako Erkidegoko Itsas Arrantzarena eta Akuikulturarena. 17. eta 18. artikulua. 56/2017 Dekretua, apirilaren 28koa, Consell-arena, Valentziako Erkidegoko arrantza eta akuikultura dibertsifikatzeko neurriak arautzen dituena. 2/2007 Legea, martxoaren 12koa, Murtziako Eskualdeko Itsas Arrantzarena eta Akuikulturarena. 3.e art. 11/2008 Legea, abenduaren 3koa, Galiziako Arrantzari buruzkoa. 112. eta 113. artikulua. 67/2012 Dekretua, uztailaren 31koa, Kataluniako itsas arrantza, arrantza- eta akuikultura-turismoa eta itsas uretako eta ur kontinentaletako arrantza-erakustaldiak arautzen dituena.

⁴ 6/1998 Legea, martxoaren 13koa, Itsas Arrantzari buruzkoa. EHAA, 62 zk., 1998ko apirilaren 1ekoa.



1. Estatuko oinarritzko araudia

A. Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legea

12. Arlo horretan, Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 3ko 3/1991 Legeak **arrantza-edo marinel-turismoa**⁵ zer den arautzen du.
13. Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 2. artikulua honela definitzen du arrantza- edo marinel-turismoa: Itsasoko profesionalen kolektiboak kontraprestazio ekonomikoaren truke gauzatutako jarduerak, itsas ingurunearekin lotutako jarduerak, produktuak, ohiturak, tradizioak, ondarea eta kultura balioztatzea eta zabaltzea bideratua, eta, horregatik, erauzketa- eta merkataritza-jarduerak soila gainditzen dituen, arautzen denarekin lotutako kontzeptuei dagokienez.
- Era berean, honela definitzen du turismo-arrantza: sektoreko profesionalak arrantza-ontzietan kontraprestazio ekonomikoaren truke egindako arrantza-turismoko edo itsas turismoko jarduerak, itsas ingurunean egiten duten lana balioztatzea eta zabaltzea xede duena, ontziratutako turistek arrantza-jarduerarik egiteko aukerarik izan gabe.
- Azkenik, honela definitzen du akuikultura-turismoa: akuikultura-jarduerak gauzatzen duten profesionalen kolektiboak egindako jarduerak, kontraprestazio ekonomikoaren bidezkoa, haien jarduerak eta akuikultura-ingurunean produktuak balioztatzea eta zabaltzea bideratua.
14. II. tituluak, sektorearen antolamenduari buruzkoa baita, **arrantza- edo akuikultura-dibertsifikaziorako neurriak arautzen ditu**. Zehazki, 74.ter artikulua turismo-arrantzaren baldintzak ezartzen ditu. Haietan adierazten denez, jarduerak horiek sektoreko profesionalak egingo dituzte, zeinak Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren mende egongo baitira. Horrez gain, jarduerak hori bateragarria izango da ontziari baimenduriko erauzte-arrantzarekin, baldin eta ontziak erregelamendu bidez ezarritako segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak betetzen baditu. Dena den, ontzi horretan ontziratutako turistek ezingo dute arrantza-jarduerarik egin.

⁵ Abenduaren 26ko 33/2014 Legean idatzitako moduan; lege horrek 3/2001 Legea aldatzen du, martxoaren 26koa, Estatuko Itsas Arrantzari buruzkoa.



B. 239/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Turismo-arrantza garatzeko baldintzak ezartzen dituena

15. Turismo-arrantzari dagokionez, Turismo-arrantzaren Jarduerak Garatzeko Baldintzak ezartzen dituen apirilaren 5eko 239/2019 Dekretuak garatzen du Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legea. Arau hori oinarrizkoa da, azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoaren arabera.
16. Errege Dekretuak arrantza-turismoko jarduera garatzeko oinarrizko baldintzak arautzen ditu, arrantza-sektorearen jarduera osagarri gisa, arrantza-ontzietan egindako erauzketa-jarduerari eta akuikulturari dagokienez (1. artikulua). Haren 4. artikulua arautzen ditu turismo-arrantzan jarduteko betekizunak⁶.

⁶ 4. artikulua. Turismo-arrantzan jarduteko betekizunak.

1. Turismo-arrantzan jarduteko, beharrezkoa izango da Sustapen Ministerioaren aurretiko aldeko txostena jasotzea (itsas segurtasuneko, nabigazioko, itsasoan giza bizitzaren eta kutsadura prebenitzeko baldintzei buruzkoa), eta indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea edo 7. artikuluan adierazitako beste finantza-berme baliokide bat, eta dagokion legedian Espainiako lurraldean legez finkatutako operadoreentzat aurreikusitako eskakizunak betetzea. 2. Sustapen Ministerioaren aldeko txostena ontziaren armadoreak eskatuta egingo du arrantza-ontziaren egoitza-portua dagoen lekuari dagokion itsas kapitaintzak; bitarteko elektronikoen bidez egingo da, horretara behartuta dagoen subjektuetako bat denean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Pertsona fisikoen kasuan, lege horren 16.4 artikuluan aipatzen diren tokietako edozeinetan aurkeztu ahal izango da. Txostena aldekoa izango da 6. artikuluan ezarritako turismo-arrantza garatzeko segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak betetzen direnean, eta gehienez ere bi hilabeteko epean emango da, ministerio horren erregistro elektronikoa eskaera sartzen den egunetik zenbatzen hasita, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.3.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Aldeko txostena eman ondoren, segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzaren bat aldatzen bada, ontziko armadoreak beste txosten bat eskatu beharko du. 3. Txostena egin aurretik, Sustapen Ministerioak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioako Arrantzako Idazkaritza Nagusiaren bidez egiaztatuko du ontzia Arrantza Flotaren Erregistro Orokorrean inskribatuta eta alta emanda dagoela. 4. Itsas kapitaintzek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioako Arrantzako Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko dizkiote arrantza- eta turismo-jarduerari buruzko aldeko txostenak, eta horrek ontziaren egoitza-portuko autonomia-erkidegoko arrantza-agintaritza eskudunari jakinaraziko dio. Era berean, kapitainek txostena jakinaraziko diote interesdunari, aldekoa edo kontrakoa izan. Ezertan eragotzi gabe txosten hori egiteko betebeharra, bi hilabeteko epea amaitu eta oraindik jakinarazi ez bada, interesdunak zilegi izango du administrazio-isiltasunez ezetsizat jotzea, martxoaren 26ko 3/2001 Legearen seigarren xedapen gehigarrian eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Lege horren 112. artikulua arabera, txosten horren aurka, zeinak ez baitio amaiera ematen administrazio-bideari, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Sustapen Ministerioako Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiari, legearen 121. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

5. Itsas kapitaintzaren aldeko txostena lortu ondoren, eta arrantza-ontziaren egoitza-portua kokatuta dagoen autonomia-erkidegoaren araudian hala aurreikusita dagoenean, beharrezkoa izango da turismo-arrantzako jardueran sartzeko gaikuntza-titulua izatea. Titulu horren eskakizunak, nolana ere, bete egin beharko du Merkatu-batasunaren Bermeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legean



IV. BALORAZIOA MERKATUETAKO LEHIAREN IKUSPEGITIK

17. Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikulua hau xedatzen du: «Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, deszentralizazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legerari eta zuzenbideari bete-betean men eginez».
- Halaber, Espainiako Konstituzioaren 9. artikulua dioenaren arabera, herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude.
18. Espainiako Konstituzioaren 38. artikulua enpresa-askatasuna aitortzen du merkatu-ekonomiaren esparruan. Botere publikoek bermatu eta babesten dituzte haren egikaritzea eta produktibitatearen defentsa, ekonomia orokorraren eskakizunen arabera, eta, hala badagokio, plangintzaren arabera.
19. Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinak behin eta berriz adierazi du Administrazioak Lehiaren Defentsari buruzko Legea eta, oro har, lehia askearen eremu desberdinak bermatzen dituen legeria bete behar dituela⁷.
20. Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legeak⁸ ezartzen du zerbitzu-emaileak aske direla Estatuan ezartzeko eta zerbitzu-jarduera bat aurrera eramateko, legean ezarritako mugekin bakarrik.
21. Hala ere, hainbat egoera existitzen dira, non, modu justifikatuan, administrazioak merkatu batean sartzeko mugak onartu edo sortu ere egin ditzakeen. Horretarako, mugek honako betekizun hauek bildu beharko dituzte: premia, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza.

ezarritakoa; bereziki, haren 17. artikuluan ezarritakoa (premia- eta proportzionaltasun-printzipioaren instrumentazioari buruzko artikulua). Aldeko txostena eta, hala badagokio, gaikuntza-titulua lortzeak bakarrik ahalbidetuko du turismo-arrantzan jardutea ontziak arrantzatzeko baimena duen arrantzaleku nazional guztietan.

Autonomia-erkidegoek interesdunari ematen dizkioten titulu guztiak jakinaraziko dizkiote Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Arrantzako Idazkaritza Nagusiari, egintza berean. Arrantza-administrazio eskudunak Arrantza Flotaren Erregistro Orokorrean inskribatuko du.

⁷ Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa. (BK 5763/2006). Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, 2007ko ekainaren 19koa (BK 9449/2004): Auzitegi Goreneko epaia. Administrazioarekiko Auzien Sala, 2008ko azaroaren 4koa (RC 5837/2005).

⁸ 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzkoa. BOE, 283. zenbakia, 2009ko azaroaren 24koa.



22. Jarduera bat abiatu eta aurrera eramateko traba arrazoitu gabeak ezartzen ez dituen merkatu batek produktibitatea, hazkunde ekonomikoa, enplegua, eta, azken batean, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen ongizatea sustatzen ditu.

1. LEA/AVCri txostena eskatzea eragindako merkatuan sartzeko baldintzak aztertzeko

23. Dekretu-proiektu honen xedea da arautzea, arrantza-sektorearen jarduera osagarri gisa, turismo-arrantza, arrantza-erakustaldiak eta arrantza- edo marinel-turismoa, itsas arrantzarekin eta akuikulturarekin erabat edo partzialki lotutako jarduerak, baldin eta arrantza-sektoreko pertsonen errentak hobetzea edo osatzea ahalbidetzen badute.

Merkatu hori arautzen saiatzen da, operadore ekonomikoak hara sartzeko baldintzak nahiz haien jardun profesionala ezarriz.

Ezbairik gabe, merkatu horretako lehia eragin dezake arautze berriak.

24. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen⁹ 1. artikuluan xedatutakoren arabera, LEA/AVC honen helburua da merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

25. Merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu eta hobetzeari dagokionez, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen 3.5 artikulua ezartzen du LEA/AVCk aholku-organo gisa jardungo duela Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan lehiaren defentsari buruzko gaietan. Zehazki, erakunde hauek eskatu ahal izango diote aholkua lehiaren eremuan: Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, batzar nagusiek, foru-aldundiek, udalek, lanbide-elkargoek, merkataritza-ganberek, enpresarien elkarteek, sindikatuak, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak.

26. Kasu honetan, aipatu araua egiten hasteko aginduak ez du jaso Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Agintaritzari egindako txosten-eskaera, nahiz eta erregulazioak eragina izan erregulazioaren xede den merkatuan sartzean eta operadore ekonomikoek jarduera gauzatzean.

⁹ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa. EHAA, 29. zk., 2012ko otsailaren 9koa



- 27.** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen¹⁰ 3. artikuluan ezarritako nahitaezko irizpena ematean, adierazi du, dekretu-proiektuak eraginpeko merkatuan sartzeko eta jarduteko baldintzak arautzen dituzenez, beharrezkoa dela LEA/AVCk horri buruzko iritzia ematea.
- 28.** Araua egiten hasi den sailak bere eskumena zabaltzen du ikuspegi ekonomikotik hain garrantzitsuak diren gaietan, hala nola industrian, berrikuntzan, nekazaritzan, arrantzan eta azpiegiturretan. Horrenbestez, beharrezkoa da Administrazio Publikoak alde aurretik balioestea egin nahi duen erregelamendu-arauak lehia askean izan dezakeen eragina, eta, hala bada, Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuen lehiaren baldintzak sustatzeko, bermatzeko eta hobetzeko sortu dituen mekanismoak erabiltzea, hala nola Lehiaren Euskal Agintaritza.

2. Lehiari buruzko gogoetak, arrantza-turismoaren merkatura sartzeari dagokionez

- 29.** Aipatutako arauaren helburua arrantza-sektore profesionalaren jardura osagarriak arautzea da, arrantza-sektorea osatzen duten pertsonen errentak hobetzeko edo osatzeko.
- Dekretu-proiektuaren aplikazio-eremuari dagokionez, arrantza profesionalaren jardura osagarri hauetara hedatzen da: Turismo-arrantza, arrantza-erakustaldia eta arrantza- edo marinel-turismoa. (3. art.)
- 30.** Jarduera horiek «arrantza- edo marinel-arrantza» kontzeptuan –horrela dago definitua Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 2. artikuluan– sartuko lirateke legez. Haren bidez, itsasoko profesionalen kolektiboek esleitzen die jardura horietan jarduteko eskubidea.
- 31.** Jarduerak Estatuko oinarritzko araudian erregulatzen dira: Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legea eta 239/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Turismo-arrantza garatzeko baldintzak ezartzen dituena.
- Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 74 ter artikuluan xedatzen denez, sektoreko profesionalak gauzatuko dituzte jardura horiek; beraz, profesional horiek Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren mende egongo dira.

¹⁰ 9/2004 Legea, azaroaren 24koa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzkoa. EHAA, 238 zk. 2004ko abenduaren 15ekoa.



- 32.** Araudi hori bere horretan biltzen du zati handiengan dekretu-proiektuak. Honako alderdi hauetan soilik egiten ditu berrikuntzak ordenamendu juridikoan:
- Xedea (1. art.), proiektuaren helburuak (2. art.) eta aplikazio-eremua (3. art.)
 - Nork gauzatu ditzaketen jarduerak eta bete beharreko betekizunak (4.1 eta 2. art.)
 - Jarduera hasteko betekizunak: Erantzukizunpeko adierazpena (6. art.)
 - Turismo-arrantzaren eta arrantza-erakustaldien erregistroa sortzea. Xedapen gehigarri bakarra
- 33.** Arazten dituen arrantza profesionalaren jarduera osagarriak honela definitzen ditu:
- Turismo-arrantza: arrantza profesionalaren jarduera osagarria, sektoreko profesionalak, kontraprestazio ekonomiko bidezkoa, arrantza-ontzietan erauzketa-edo erakustaldi-arrantza gauzatzean datzana, helburu duena sektoreko jarduerak eta produktuak ez ezik, marinel-munduko ohiturak, tradizioak, ondarea eta kultura ere balioztatzea eta zabaltzea. (3. art.)
- Arrantza-erakustaldia: edozein arrantza-arterekin egindako jarduera, kontraprestazio ekonomiko bidezkoa, helburu duena itsas baliabideak erauzteko tokian haren funtzionamendua eta ezaugarriak erakustea, ezertan eragotzi gabe erakustaldi haren ondorioz itsas baliabideen kantitate txiki bat halabeharrez erauztea. (3b art.)
- Arrantza- edo marinel-turismoa: arrantza-portuetan, akuikultura-instalazioetan eta arrantza, akuikultura eta itsaski-bilketarekin lotutako itsasertzeko edo kontinenteko guneetan arrantza-ontzietatik kanpo **arrantza-sektoreko profesionalak** kontraprestazio ekonomiko baten truke gauzatzen dituzten jarduerak, helburu dutenak sektoreko jarduerak eta produktuak eta marinel-munduko ohiturak, tradizioak, ondarea eta kultura balioztatzea eta zabaltzea. (3c art.)
- A. Turismo-arrantzako jarduerak, arrantza-erakustaldiak eta arrantza-
edo marinel-arrantzako jarduerak egin ditzaketen pertsonak (4.1 eta 2.
artikuluak)**
- 34.** Dekretu-proiektuaren 4.1 artikulua ezartzen du nork egin ditzakeen turismo-arrantzako jarduerak eta arrantza-erakustaldiak:
- A) Arrantza, itsas akuikultura edo itsaski-bilketa (itsasontzitik) egiteko baimenak, emakidak eta lizentziak dituzten pertsonak.
 - b) Arrantzale-kofradiaz, elkarte, armadore-kooperatibaz edo ekoizle-erakundez osatutako merkataritza-entitateak, a) apartatua jasotako baimen, emakida eta lizentzien titularrekin batera.
- 35.** Era berean, dekretu-proiektuaren 4.2 artikulua xedatzen du nork gauzatu ditzaketen arrantza- edo marinel-turismoko jarduerak:



A) Arrantza, itsas akuikultura edo itsaski-bilketa (itsasontzitik) egiteko baimenak, emakidak eta lizentziak dituzten pertsonak.

b) Arrantzale-kofradiaz, elkartez, armadore-kooperatibaz edo ekoizle-erakundez osatutako merkataritza-entitateak, a) apartatuan jasotako baimen, emakida eta lizentzien titularrekin batera.

c) Merkataritza-entitateak, a) eta b) apartatueta aipatutako pertsonak turismo-operadoreekin edo bestelako zerbitzu-enpresekin –Dekretu honek eraginpean hartzen dituen turismoaren, jolasen, hezkuntzaren edo kulturaren alorretako jarduerak garatzearekin loturikoekin– osatutakoak, betiere merkataritza-entitate horiek osatzen dituzten enpresa edo entitate gehienak arrantzaren, itsaski-bilketaren edo akuikulturaren sektorekoak badira eta akzioen edo partizipazioen % 50 baino gehiago arrantza-sektoreko enpresa edo entitateei badagokie.

- 36.** Gogoratu behar da lortu nahi den arauaren helburua dela erauzketa-jardueren jarduera osagarri horiek arautzea, eta, horregatik, jarduera horiek egiteko (Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 2. eta 74.ter artikulua eta 239/2019 Errege Dekretuaren 4. artikulua) autonomia-erkidegoak gaitu ditzakeen pertsonak arrantzako profesionalak direla, hau da, arrantza-ontzi bakoitzetik jarduera egiteko dagokion lizentziaren titularrak.
- 37.** Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko 17/2009 Legearen 4.1 artikulua ezartzen duenez, zerbitzu-emaileak libreki ezarri ahal izango dira Espainiako lurraldean zerbitzu-jarduera batean aritzeko, **lege honetan aurreikusitakoaren arabera ezarritako mugekin bakarrik.**
- 38.** Horrela, bada, Itsas Arrantzari buruzko Legeak jarduera horien erreserba egiten du arrantzako, itsas akuikulturako edo itsaski-bilketako baimen, emakida eta lizentzien titular diren pertsona fisiko edo juridikoen alde; horiei «Sektoreko profesionalak» deritze (Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 2. eta 74 ter.3 artikulua).
- 39.** Hala ere, egin nahi den erregelamendu-arauak arrantzaren jarduera osagarri horiek garatzeko aukera ematen die 34. eta 35. paragrafoetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten merkataritza-erakundeei.
- 40.** Proposamena egin duten sailek ez dute arrazoitu edo justifikatu proposatutako neurria, eta ez dute ebaluatu arrantzale profesionalen errentak hobetzeko izan dezakeen onura. Ez dute aztertu, halaber, neurri hori hartzearen alternatibarik dagoen, ez neurri horiek turistarentzat onuragarriak diren ala ez.
- 41.** Lehia askearen ikuspuntutik, sektoreko profesionalen partaidetza duten merkataritza-enpresak (4.1.b eta 2. artikulua) arrantza-turismoko jarduerak garatu ahal izateko gaitzeak zerbitzu horiek arrantza-turismoaren merkatuan eskaintzen



lagun dezake, eta, horrekin batera, merkatu horretako lehia bultza dezake. Horrela, turistak zerbitzu hobeak izan ditzake, prezio hobean.

- 42.** Hala ere, dekretu-proiektua ohiko legezkotasunera egokitzearen ikuspuntutik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 94/2020 Irizpenean adierazi du ezen, oinarriko araudiaren arabera (Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 2. eta 74 ter artikulua eta 239/2019 Errege Dekretua), arrantzako profesionali ematen zaiela jarduera osagarri hori egiteko baimena (71. paragrafoa), eta, bere ustez, proiektua birmoldatu egin behar dela, gaitutako pertsonak izan daitezten erauzketa-lizentzien titularrak zuzenean –armadoreak–, hargatik eragotzi gabe aipatutako erakundeekin merkataritza- edo lankidetzaharremanen aurreikuspenen bat ezarri ahal izatea turistek jardueran parte hartu eta hura gauzatu dezaten. Edo ezertan eragotzi gabe merkataritza-erakunde horiek turismo-arrantzarekin lotutako jardueretan rol bat esleituta izateko aukera edo merkaturatze- edo logistika-funtzioak betetzeko aukera. (72. paragrafoa).

B. Jarduerak egiteko baldintza orokorrak

- 43.** Turismo-arrantzako jarduerak eta arrantza-erakustaldiak egin nahi dituzten pertsona fisiko eta juridikoek baldintza hauek bete behar dituzte.
- Arrantza, itsas akuikultura edo itsaski-bilketa (ontzitik) egiteko baimen, emakida edo lizentzia profesionalaren titular izatea.
 - Egin nahi dituzten jardueren eta horietarako baliatuko dituzten bitarteko teknikoek eta baliabideen deskribapen-memoria bat egitea.
 - Jarduerak eragin ditzakeen kalteak eta galerak estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuta izatea, 30.000,00 euroko gutxienezko kapitala duena, baita aipaturiko jardueren erabiltzaile guztien kalte pertsonalak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguru bat ere; aseguru horiek gutxienezko kapital hauek izan beharko dituzte biktima bakoitzeko: 30.000,00 euro, heriotzaren kasuan; 3.005,06 euroko azpimugarekin, 14 urtetik beherako adingabe baten heriotzagatik, azpimuga-zenbateko hori ehorzketa-gastuak ordaintzeko erabili beharko dela; 60.000,00 euro, baliaezintasunaren kasuan; eta 6.000,00 eurora arte, sendatze-, erreskate- eta lekualdatze-gastuetarako.

a. Baimen, emakida edo lizentzia profesionala

- 44.** Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 23.1 artikulua ezartzen duenez, kanpoko uretan itsas arrantza profesionala egiteko erabiltzen den ontzi orok aldi baterako administrazio-baimena izan beharko du ontzian, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak emana, arrantza-lizentzia izeneko, eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorraren zenbaki bat izan beharko du. Halaber, beste edozein arrantza-jarduerak dagokion baimena izan beharko du.



45. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legearen 3. artikulua ezartzen duenez, arrantza-arloan eskumena duen saileko organoak emandako lizentziak, baimenak edo emakidak bete beharko dira itsas arrantzan, itsaski-bilketan, itsas haztegietan, alga edo argazoen erauzketan edo bilketan eta angularen arrantzan, ezertan eragotzi gabe itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeagatik administrazio eskudunari dagozkion lizentzia, baimen eta emakidak.
46. Dekretu-proiektuak jarduera horiek arautzen ditu itsasontziko erauzketa-arrantzaren, akuikulturaren edo itsaski-bilketaren osagarri gisa, lege baimen, emakida edo lizentzia profesionalaren mende dauden jarduerak.

b. Erantzukizun zibileko aseguru eta Arrantza-flota operatiboaren Erroldan izena ematea

47. Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 74. ter artikuluan seigarren paragrafoan ezartzen denez, turismo-arrantzako jarduerak egitea erabakitzen duten ontziek aseguru bat edo beste finantza-berme baliokide bat sinatu beharko dute erantzukizun zibila estaltzeko.

Lege hori garatzeko erregelamenduaren 7. artikuluan ezartzen denez, aseguruaren edo finantza-bermearen zenbatekoak ezingo dira izan aisia- edo kirol-ontzietarako nahitaez harpidetu beharreko erantzukizun zibileko aseguruaren Erregelamenduan aurreikusitakoak baino txikiagoak (erregelamendu hori apirilaren 16ko 607/1999 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Lortu nahi den arauak 4.2.c artikuluan ezartzen ditu erantzukizun zibileko aseguruak estalitako kalteak eta horien zenbatekoak. Zenbateko horiek 607/1999 Errege Dekretuak ezarritako marjinetan daude; beraz, LEA/AVCren ustez, proportzionala da neurria.

48. Azkenik, dekretu-proiektuaren 4.2 artikulua xedatzen du jarduerak ontzietan egiten badira, ontzi bidez arrantza edo itsaski-bilketa gauzatzeko flota operatiboaren erroldan inskribatuta eta alta emanda egon beharko dutela ontzi horiek.

Lortu nahi den arauak Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 22. artikuluan xedatutakoa errepikatu besterik ez du egiten: kanpoko uretan arrantza-jarduera egin dezaketen ontziak eta kanpoko eta barruko uretan aldi berean egiten dituztenak Arrantza Flota Operatiboaren Erroldan inskribatuta egon behar dira. Bere edukia Arrantza Flotaren Erregistro Orokorraren zati da.



c. Jarduerak gauzatzeko baldintza orokorren laburpena

49. Laburbilduz, turismo-arrantzako jarduerak eta arrantza-erakustaldiak egin nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoen betekizunei dagokienez, lortu nahi den arauak legean jada ezarritako betekizunak errepikatu besterik ez du egiten, eta *ex novo* soilik arautzen du nahitaezko erantzukizun zibileko aseguruaren gutxieneko estaldura; erregulazio hori proportzionala da.

C. Jardueren hasiera

a. Sustapen Ministerioaren aldeko txostena

50. Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 74 ter artikulua xedatzen duenez, turismo-arrantza egiteko derrigorrezkoa izango da Sustapen Ministerioak aldeko txostena ematea, itsas segurtasuneko, nabigazioko, itsasoan giza bizitza bermatzeko eta kutsadura prebenitzeko baldintzei buruzkoa¹¹.
51. Dekretu-proiektuak, 5.1 artikuluan, agintaritza eskudunaren alde aurreko aldeko txostena eskatzen du (gaur egun, Sustapen Ministerioa, dagokion itsas kapitaintzaren bidez).

b. Erantzukizunpeko adierazpena

52. Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legea garatzeko oinarrizko erregelamenduak bere 4. artikuluan ezartzen duenez, itsas kapitaintzaren aldeko txostena lortu ondoren, eta arrantza-ontziaren egoitza-portua kokatuta dagoen autonomia-erkidegoaren araudian hala aurreikusita dagoenean, beharrezkoa izango da turismo-arrantzako jardueran sartzeko gaikuntza-titulua izatea. Titulu horren eskakizunak, nolana ere, Merkatu-batasunaren Bermeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legean ezarritakoa bete beharko du, eta, bereziki, haren 17. artikuluan ezarritakoa (premia- eta proportzionaltasun-printzipioaren instrumentazioari buruzko artikulua).

Aldeko txostena eta, hala badagokio, gaikuntza-titulua lortzeak bakarrik ahalbidetuko du turismo-arrantzan jardutea ontziak arrantzatze baimena duen arrantzaleku nazional guztietan.



53. Dekretu-proiektuak 6. artikuluan adierazten duenez, dekretuan araututako jarduerak egiten dituzten pertsonak erantzukizunpeko adierazpen¹² bat aurkeztu beharko dute, arrantza-arloko zuzendaritza eskudunari zuzendua. Adierazpenean honako hauek jasoko dira: eskatzailearen identifikazio-datuak, garatu beharreko jardueren aurreikuspena, bitarteko teknikoak eta baliabideak, eta erantzukizun zibileko aseguruua duela dioen adierazpena.
54. LEA/AVC honek positiboki baloratzen du jardueraren hasiera inolako traba administratiborik gabe gertatzea, erantzukizunpeko adierazpena azaldutakoaren arabera aurkezte hutsarekin. Nolanahi ere, Administrazio Publikoak gerora egiaztatu ahal izango du araudian ezarritako betekizunak benetan betetzen direla.

D. Turismo-arrantzaren, arrantza-erakustaldien eta marinel-turismoaren administrazio-erregistroa sortzea (Xedapen Gehigarria)

55. Dekretu-proiektuak, bere xedapen gehigarriaren bidez, Turismo-arrantzaren, arrantza-erakustaldien eta marinel-turismoaren erregistroa sortzen du.
- Sortu baino ez du egiten, ezer arautu gabe, aldizka eguneratzeko eta argitaratzeko betebeharretik harago.
56. Dekretu-proiektuak ez du jardueraren hasiera erregistroan inskribatzearen baldintzapean jartzen, eta ez da oztopo merkatura sartzeko. Erregistro-inskripzioa adierazpen- eta publizitate-ondoreetarako baino ez da.

V. ONDORIOAK

57. LEA/AVC honek aldeko balorazioa egiten dio dekretu-proiektuari, txosten honetan adierazitako moduan.
58. Hala ere, dekretu-proiektua legezkotasunera egokitzearen ikuspuntutik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 94/2020 Irizpenean adierazi duenez, Estatuko oinarriko araudiaren arabera (Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen 2. eta 74 ter artikulua eta 239/2019 Errege Dekretua), arrantzako profesionalei ematen zaie jarduera osagarri hori egiteko baimena, eta, Batzorde Juridikoaren ustez,

¹² Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 69. artikulua arabera, erantzukizunpeko adierazpena da interesdunak sinatutako dokumentu bat zeinean adierazten baitu, bere erantzukizunpean, betetzen dituela indarrean den araudiak eskubide edo ahalmen bat aitortzeko edo hura baliatzeko ezarritako betekizunak, baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko duela hark hala eskatzen dionean, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betebeharrak betetzeko aitortzen edo baliatze horri dagokion denbora guztian.



proiektua birmoldatu egin behar da, gaitutako pertsonak izan daitezen erauzketa-lizentzien titularrak zuzenean –armadoreak–, hargatik eragotzi gabe aipatutako erakundeekin merkataritza- edo lankidetzaharremanen aurreikuspenen bat ezarri ahal izatea.